

DROGETEN ITURRA

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 312. zenbakia. 2022ko ekaina



**Ermuko neska
gazteak martxan**



"Aurkitu gabeko altxorra"
Zirika Zirkus konpainia
Uztailaren 15ean, ostirala
17:30ean
Orbe Kardinalaren plazan



Petti
Bakarkako kontzertua
Uztailaren 19an, asteartea
22:30ean
Martxoaren 8a plazan

Arg.: J. A. Areta Goñi (JUXE)



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Nü Shu - Maddi Goikoetxea.

LAGUNTAILEAK:

Miguel Fernández,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López eta
Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola,
Bizkaiko Pintxo Txapelketa,
Estibalitz González,
Lobiano Gastronomía Elkartea,
Maddi Goikoetxea,
Mallabiko Udala,
Mallabiko Futbol Taldea,
Ainara Mallagaray,
Valentín Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
Rubén Torres,
Imanol Urreta,
Dorleta Vidal
eta Zirika Zirkus.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ander Goikoetxea,
Piedi Eizagirre
eta Mohamed Hdidou.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik


Gaia: San Juan kantua

San Juan San Juan

(Entzuteko: www.alboka.es)

San Juan, San Juan,
bixar da San Juan.
Arrautza bi kolkuan,
beste bi altzuan.
Sorgiñak eta lapurrak
erre, erre;
artuak eta garixak
gorde, gorde!

Gora San Juan!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA 4 Imanol Urreta (Italia)	ERMUAN ZER? 14-15 Nü Shu, Petti eta Zirika Zirkus
ELKARRIZKETA 5-7 Cien Duros musika taldea	KIROLZALE 16 Rubén Torres korrikalaria
MALLABIAN ZER? 8-9 Oizeko multzo megalitikoa	BOTEPRONTOAN 17 Fernando Dosantos
ERREPORTAJEA 10-11 Felix Areitio eta Hemingway	IRITZIA..... 18 "Umeak eta jolasa" (Jon Saez)
MOTZEAN 12-13 Liburutegiak <i>bookface</i> erronka abiatu du	AISIALDIA 19 Udaldirako aukerak
DEBABARRENEKO TURISMOAREN INGURUKO GEHIGARRIA	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	UZTAILEKO AGENDA.... 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Imanol Urreta

Imanol Urreta ermuarra Italiara joan zen iazko irailean eta bertan eman ditu hilabete batzuk, Ferraran, Italiako hiri txiki batean, Emilia-Romanako eskualdean.

- **Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?** Unibertsitateko Erasmus programan sartu nintzen, eta karrerako praktikak beste herrialde batean egiteko aukera eman zidaten.

- **Erabaki erraza izan zen?** Askok kostatu zitzaizkidan joan edo ez erabakitzea, Ermuan oso gustura nengoen-eta; baina azkenean esperientzia hura bizitzea aukeratu nuen.

- **Nola imajinatzen zenuen leku hura?** Egia esanda ez nekien ezer Ferrarari buruz, Googlen bilatu behar izan nuen non zegoen!

- **Zer topatu zenuen? Zer iruditu zitzaizun deigarrien?** Italiako janaria oso berezia da, eta edozein forma eta zaporeko pasta dago. Ferrar-

an, esaterako, oso tipikoak ziren "cappellacci di zucca", kalabazarekin betetako pasta. Bestalde, eguraldia Euskal Herrikoa bezalakoa da, pixka bat hotzagoa agian.

- **Ondo moldatu zara bertako hizkuntzarekin?** Ferraran italiara bakarrik hitz egiten da, eta ospitaleko langile gehienek ez dakite ingelesa, orduan italierekin moldatu behar izan naiz. Hasieran oso arraroa zen, baino azkenean italiara eta gaztelera antzekoak dira, eta ulertzeko ez nuen arazo handirik izan.

- **Zerbait bota zenuen faltan?** Familia eta lagunak, baita ohea ere! Erasmuseko ohea oso txikia zen niretzako, kar-kar.

- **Nolakoa zen zure egun arrunt bat?**



Astean zehar ospitalera joaten nitzen, goizetik normalean, eta bertan pasatzen nuen goiz osoa (kontsultan, kirolfanoan...). Bukatu ondoren, etxera bazkaltzera joaten nintzen eta arratsalde-gaueetan plan anitzak egiten genituen: kozinatu, ikasi, kirola egin... Edozerrekin konformatzen ginen.

- **Noiz heldu zinen Ermura?** Nire Erasmusa 4 hilabetekoa

izan zen: irailaren azken astean heldu nintzen Italiara eta Gabonak arte ez nintzen Ermura bueltatu. Gero urtarrrilean berriro joan nintzen beste hilabete bat pasatzera, eta otsailean bukatu zitzaizkidan Italiako garaia. Martxoan bueltatu nintzen lagunak ikustera, baina lau egunez bakarrik, kar-kar-kar.

Nahia Ruiz Albizuri

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Ezkerretik hasita, Juanjo, Eneko (zitik), Ángel (eserita), Miguel eta Pedro.

Cien Duros musika taldea:

“Gure bertasio batzuk abesti originalak baino hobekak dira”

Kide gehienak 1968ko kintakoak izan arren, Cien Duros taldea duela urte gutxi sortu zen Ermuan. Aftershock talde ohiaren kide batzuk osatu zuten 2016an, Scorpio tabernaren 30. urteurrenean jotzeko helburuarekin. Pedro Maeso (gitarra), Juanjo de Miguel (gitarra) eta Ángel Cáceres (baxua) musikariei Miguel Ballesteros (bateria) eta Eneko Grande (abeslaria) batu zitzaizkien, eta ordutik hainbat emanaldi egin dituzte elkarrekin. Maiatzean Vertigorock jaialdian jo zuten, eta dagoeneko San Pelaion duten garajearen entseatzeko dihardute, agendan dituzten hurrengo kontzertuetan onena eman ahal izateko. Lehena Eibarko San Kristobal auzoko jaietan izango da (uztailaren 15ean), eta uda ostean NapiMetalFesten parte hartuko dute, Silver Fist, Azrael, Lyra Mortem, Sugoi eta Delion taldeekin batera.

- Zer gogoratzen duzue Aftershock taldeaz?

Oso gazte hasi ginen talde horretan jotzen, eta ibilbide aipagarria izan genuen: Ermuko Gaztetxean jo zuen talde bakarra izan ginen (polizia etorri baino lehen), Villa de Ermua lehiaketa irabazi genuen, talde eta leku ezberdinetan jo genuen... Gero jotzeari utzi genion, baina harremanetan jarraitu genuen eta, duela urte gutxi, Cadizeko diskoetxe batek CDa atera du gure abesti guztiekin. Harritzekoa!

- Nola sortu zen berriro batzeko ideia?

Ni (Pedro Maeso) Scorpio tabernan egoten naiz sarritan, eta tabernako 30. urteurrena zela-eta, Aftershock berriro elkartzeko proposamena egin zidan Scorpioko Anurerek. Banekien denok batzea zaila izango zela, eta lehengo eta behin Juanjorekin jarri nintzen harremanetan, anaiak bezalakoak garelako, eta bizitza erdia daramagulako elkarrekin gitarra jotzen. Gero Ángeli esan nion, eta banekien baietza emango zidala, baina bateria eta abeslaria falta zitzaigun. Orduan Migueli deitu genion, laguna zelako, bateria jotzen zuelako, eta gure kintakoa zelako. Azkenik, abeslari lana Enekorri eskaini genion, nahiz eta gu baino 20 urte gazteagoa izan, ezagutzen ginen eta harreman ona genuen.

- Zer moduz moldatu zineten kontzertu hartan?

Oso ondo. Gure garaiko beste talde batzuekin batera jo genuen (Storbais, Red Blaze...), eta asko gozatu genuen. Gero Enekok utzi gintuen, ikasten ari zelako, baina guk aurrera egin genuen Cien Duros bezala, eta laupabost emanaldi eskaini genituen, tartean Velliscako (Cuenca) Birrarock jaialdian 2018an: itzela izan zen! 2019an NapiMetalFesten jo genuen, Durangoko Antzokian, eta Eneko berriro batu zitzaigun, gaur arte.

- Nondik dator "Cien Duros" izena?

80. hamarkadatik dator. Ángel, Juanjo eta Pedro kuadrilla berekoak gara txikitatik, eta gaztetxoak ginenean "cien



“80. eta 90. hamarkadetako heavy metal klasikoa, speed metala eta thrash metala jotzen dugu”

duros” esamoldea egoera ezberdin askotan erabiltzen genuen.

- Zein musika mota egiten duzue?

Heavy metal klasikoa, speed metal, thrash metal... 80. eta 90. hamarkadetako abestien cover-ak edo bertsoiak egiten ditugu batez ere eta, musika erraza ez den arren, gure bertso batzuk originalak baino hobekak dira! Metallicaren 80. hamarkadako abestiak, Megadeth, Exodus, Judas Priest, Anthrax, Iron Maiden..., eta beste aldetik La Polla, Extremoduro edo Eskorbuto, besteak beste. Gaztetxeko arima dugu!

- Maiatzean Vertigorock jaialdian parte hartu zenuten. Talde horien abestiak jo zenituzten?

Bai, baina horietaz gain Vertigorocken parte hartzeko baldintzetako bat da abesti propioak ere jotzea, horregatik Aftershock

taldearekin sortu genituen abesti batzuk berreskuratu behar izan genituen.

- Cien Durosekin ez duzue abestirik sortu?

Ez, ez zaigu ezer bururatzen! Beno, bururatu bai, baina denbora behar da buruan ditugun ideia horiek garatzeko. Gaztetan abesti jario ederra genuen; orain, aldiz, bakoitzak bere lana du, bere zereginak, eta zailagoa da. Batzuetan, astean birritan entseatzeko elkartzea ere ez da lan erraza! Baina horretan gabiltza. Abesti instrumental pare bat ditugu, eta ea gai garen letra ipini eta aurrera egiteko.

- Ingeleseztaritzen zarete, gaztelaniaz baino gehiago?

Egiten ditugun bertso gehienak ingelesez dira, baina guk zerbait sortzekotan, gaztelaniaz sortuko dugu. Euskaraz ere zerbait sortu nahi dugu, hemengoak gara-eta!

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

- **Baduzue abesti kuttunik?**
Bai, Judas Priest taldearen *Breaking The Law* klasiko bat da, eta kontzertuaren amaieran jotzen dugu normalean. Jendeari asko gustatzen zaio, eta Vertigoroken ere bukaerarako utzi genuen.

- **Vertigorock izan da zuen azken kontzertua?**

Bai, baina dagoeneko aurrera begira gaude, eta hurrengo emanaldiak prestatzen ari gara. Uztailaren 15ean, ostirala, Eibarren joko dugu, San Kristobal auzoko jaietan, eta irailaren 17an, IV. NapiMetal-

Festen parte hartuko dugu, 17:00etatik aurrera Landakon. Silver Fist, Azrael, Lyra Mortem, Sugoi eta Delion taldeekin batera arituko gara. Horien artea, Sugoi gure maila berekoa da, baina beste guztiak nazio mailan edo nazioarteko mailan aritzen dira.

- **Nola lotzen dituzue hitzordu horiek?**

Guk ez dugu ezer egiten. Ahoz ahokoak oso ondo funtzionatzen du, eta deitu egiten digute.

- **Dirulaguntzarik duzue?**

"Proiektu hau pribilegio txiki bat da denontzat"

Ekonomikoa ez. Hala ere, egia da duela urte batzuk Ongaraiko lokalak jarri zirela martxan, eta bertan entseatzeko aukera izan dugu, baina ez gara sekula joan. San Pelaioko garaje batean entseatzeko dugu, beste talde batekin txandaka, eta oso gustura gaude. Dena den, ez gara beti hain ondo egon, sasoi batean Eibarko lokal ziztrin batean egon ginen: ezin genuen ezta arnastu ere!

- **Zein da zuen helburua musikan?**


Ondo pasatzea eta disfrutaztea, inolako obligazio barik. Ez dugu kontzertuen beharra ere ez: urtean hirutan jotzen badugu, nahiko! Eta gainera zorte handia dugu, zeren eta kontzertu handietarako, entzutetsuetarako edo izen handiko taldeen ondoan jartzeko deitzen digute. Beraz, horrekin pozik!

- **Zeinbat lagunuen aurrean jotzen duzue gehienez?**

500 pertsonen aurrean gutxi gorabehera, eta jendearen gertutasuna asko igartzen da.

- **Nola ikusi nahiko zenukete zuen burua hemendik urte batzuetara?**

Ile gehiagorekin ez, ezinezkoa delako, baina bai heavy *carca* batzuk bezala. Une hauetaz gozatzen jarraitu nahi dugu, izan ere entsegu bakoitza gozamina da, ia kontzertuak baino dibertigarriagoak. Proiektu hau pribilegio txiki bat da denontzat.



- Urteak aurrera doaz, baina esentziak bere horretan jarraitzen du...

Dorleta Vidal



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Eskuz egindako terapietan adituak



ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduek: 688 85 18 95

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO OKELAK ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Oizeko multzo megalitikoa, Historiaurreko aztarna baliotsua

Trikuharriak, tumuluak, cromlechak... Oiz mendiaren paisaiaren parte dira antzina-antzinatik, baina ezkutu samarrean egon dira. Bertan egindako indusketa arkeologikoen Bizkaiko lurraldean Burdin Aroan datatutako lehen hilobi megalitikoak bistaratu dituzte, eta balio neurtezina dute arkeologiaren ikuspuntutik.

Ez da urrerik, ez bitxirik, ezta altxor-kutxarik azaldu. Harriak beste-rik ez begiratu baten.

Baina duten kokapen, ezaugarri eta antzinatasunaren arabera deskubrimendu harrigarria suposatu dute. 1927. urte inguruan Joxe Miel Barandiaranek beraien berri idatziz jaso zuen. 2009an Eusko Jaurlaritzak Kultura-Ondasun bezala katalogatu zituen. 2021ean, Berriz eta Mallabiko Udalen ekimenez, Probazelaiburu, Iturzurigana, Ama Birjinen Baso eta Ipiñarrieta parajeetan kokatutako multzo megalitikoetan indusketa sakonak egiteari ekin zion AGIRI Arkeologia Elkarteak, Juan Carlos Lopez Quintanaren gidaritzapean.

Ebaluaketa arkeologikoa egin, zonaldea sastrakez garbitu eta zentimetroz zentimetro sedimentu guztiak induskatu ostean, arkeologoen kronologikoki 4.000 urte izan ditzaketen hilobien aztarnak topatu dituzte. Hauen besteko antzi-

nakotasuna duten eremuetan gertatzen den bezala, ez da erraustutako giza arrastorik topatu, baina bai buztinezko ontzi batenak.

Bi cromlech edo baratze ageri izan dira, borobilean kokatutako harriekin egindako itxitura, eta karbono-14 datazio frogara egin ostean Pirinioetako zirkuluen esparru kronologikoa kokatu dituzte. Harri multzoen sinbologiari erreparatuta, lurraldetasuna markatzeaz gain, leku sakralizatu batez hitz egiten digute.

Indusketa lanak amaitu ostean, harrotutako lurra bere lekura ekarri da berriro eta harrien zati bat agerian lagada. Historiaurreaz hitz egiten digun espazio magiko hau babestu, ezagutzera eman eta balioan jartzeko ekimenen artean bisita gidatu bat antolatu zen, oinazean Berriztik atera zena eta 150 lagun inguru batu zituen.

Estibalitz González



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Drogeteniturrri, 312 zk.

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



AURTENGO FRONTENIS MARATOIAK BADITU IRABAZLEAK



Ekainaren 11n eta 12an Mallabiko Frontenis Maratoia burutu zen, eta Jony Serna (Villarcayo) eta Aitor Maeztu (Bilbo) izan ziren irabazleak bikoteka, finalean Asier Bustinza eta Unai Duandikoetxea araba-

rrak mendean hartu eta gero (13-7). Bakarka, Aitor Maeztuk lortu zuen txapela, Mikel Urrutia abadiñarrari 18-11 irabazi eta gero. Antolatzaileek adierazi dutenez, 52 erraketistek parte hartu zuten, asteburu alai batean.

FRONTENIS PROMISES I. TXAPELKETA BURUTU DA MALLABIAN

Ekainaren 18an, larunbata, Infantilen eta Kadeteen I Frontenis txapelketa egin zen Mallabian. Hamar gaztetxok eman zuten izena, eta guztien gainera Eki Amoategi soraluzetarra nabarmendu zen, antolatzaileen esanetan. Jokatu zituen partida guztiak erraz irabazi zituen, eta finalean 16-3 irabazi zion Aner Gangutia zaldibartarrari.

UZTAILAREN 1EAN KZGUNENKO TUTOREAREKIN BILTZEKO AUKERA EGONGO DA


Uztailaren 1ean, ostirala, KzGuneako tutorea Mallabian izango da 16:00etatik 17:45ak arte. Tutoretza bat nahi duten herritarrek txanda eskatu beharko dute www.kzgunea.eu/cita-previa webgunean edo 945 06 25 55 telefono zenbakira deituta (9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara).

MALLABIKO UDALAK UR-JAUZIEN IBILBIDEA BERRESKURATU DU GERE AUZOAN



Mallabiko Udalaren webgunean irakurri daitekeenez, azken hilabeteotako lanari esker, Aranbaltzeko ur-jauzietara daraman ibilbidea berreskuratu da, Gere auzoan. 2022ko aurrekontuetan jasotako ibilbide osasungarrietako bat da, eta Udalak hainbat jarduerag egin ditu hura berreskuratzeko, hala nola sastraka kentzea eta markatzea Wikilocera igotzeko eta ibilbidea erregistratuta izateko. Guztira, 6,47 kilometro daude Trabakutik ur-jauzietara, 684 metroko gehieneko altitudearekin. Proiektu hau ibilbide osasungarriak berreskuratzeko planaren zati bat da, eta horren barruan, laster, plazatik Zengotitarainoko ibilbidea ere berreskuratuko da, errekararen ondotik doana. Proiektu osoaren aurrekontua 15.000 euro gehi BEZ da.

FEREDU SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Felix Areitio Aranburu 1915eko uztailearen 29an Ermuko Artekale 9an jaio zen, Eleiza pareko arkupe zaharren gainean. Francisco eta Petra gurasoek beste 3 seme-alaba gehiago izan zituzten: Angel, Jose eta Alejandra. Pilotan gaztetxotan hasi zen eta zesta modalitatea aukeratu zuen, profesional mailan arituz Espainia, Kuba, Estatu Batuak zein Mexikoko hainbat pilotalekutan. Atzelaria zen eta jaioterriaren gomutaz "Ermua" bezala eman zen ezagutzera pilota munduan; gero, bere jokatzeko moduari erreparatuta, "Kanguro" ezizena ere jarri zioten.

Zestolari bikaina

Zaragozako Aragonés pilotalekuan debutatu zuen 1935ean. Urte berean eta hurrengoan, Mexiko pilotalekuan jardun zuen eta handik itzulita Bilboko Euskaldunan. Berrito itsasoz beste aldera joanda, 1939an Habanako Jai Alai pilotalekuan kontratatu zuten. Urte batzuk eman zituen Kuban, 1945an aldi bat Mexikon, 1949an Mar-kinan topatzen dugu, 1952tik 1955ra Miamiko Jai Alain...

Mexikora pilotari txapeldun handiaren famarekin iritsi zen, baina hasiera gogorak izan zituen bertako kapitaleko 2.000 metrotik gorako altitudera eta pilotalekuaren ezaugarrietara egokitu ezinik. Ez gutxi sufrituta lortu zuen "Kanguro"k bere jokoa berreskuratzea eta orduko prentsaren arabera izatea "punta-puntako pilotaria", "fenomenoa", "Jai Alai-ko Jaungoikoa", "txistera jokoaren artista", "frontoiak bete eta zirrara sortzen duten



Felix Areitio pilotaria, Hemingwayen laguna

Kubak batu zituen. Ernest Hemingway idazlearen Habanako Finca Vigía etxean ohiko gonbidatua zen Felix Areitio zestalari ermuarra, eta estatubatuarraren biografietan ere honen aipamena egiten da. Idazleari buruzko hainbat liburuk eta artikuluk gizon bien arteko adiskidetasuna eta lehia jasotzen dute.

horietakoa"... *Cancha* hama-bostekari mexikarrak jaso zuen bezala, "partidu kolosalak" maisuki jokatu bere sasoiko atzelaririk onena bihurtu zen, "espektakulo hutsa".

Mexikon zela, 1945an, Euskal Jaialdi bat egin zen frontoian, harmailetan Jose Antonio Agirre lehendakaria ikusle zela. Felix izan zen Mexikoko bandera eramateaz arduratu zena eta Aedo pilotaria ikurriñaz, une horretan gerraren ondorioz debekatuta Euskal Herrian. Abanderatu gisa irtetzearena keinu ausarta izan omen zen, *Cancha* Espainian saltzen zela ere kontutan izanda.

Euskal pilotariak Ameriketara mirestuak eta idolo bezala hartuak ziren; Felix Areitio Olinpo horretan egon zen. 1954-55 denboraldian Most Consistent Player Trophy Winner irabazi zuen eta Gold Cesta Stakes. 1955ean erretiratu zen kantxetatik.

Euren aita Ermuan tailer txiki bat izandakoa zen. Oñatira lekualdatu zuten lehenengo eta Gasteizera gero. Ameriketatik ekarritako patente bat tarteko, 1947an Cremalleras Areitio jarri zuten anaien artean, gerora Prentice izango zena. Hamar urte beranduago 354 langile zituzten, gehiengo zabal bat emakumeak. Pilota lagata, Felixek etxeko enpresan jardun zuen.

Kuban lagun

Ernest Hemingway, XX. mendeko idazle handienetakoa bihurtuko zena, 1923an etorri zen estreinako aldiz Iruinera, *Toronto Star* egunkarirako kazetari gisa. Han betirako maitemindu zen San Ferminekin eta zezenketekin. Be-

randuago hantxe maiteminduko zen berriro: Espainiako Gerra Zibilean *North American Newspaper Alliance* egunkariko korrespontsala zela, Martha Gellhorn gerra-kazetaria ezagutu zuen Iruineko karriketara eta 1940an bere hirugarren emazte bihurtuko zen. Kuban Finca Vigía erosi zuen bikoteak, lagun askoren aterpe eta bilgune bihurtu zen etxea; ohikoaren artean, Felix. Hain izan zen estua euren artekoa ze, *Cancha* aldizkariaren eskariz eta Ernesten pilota zaletasunaren atxikiarekin, Felixek amerikarra elkarrizketatu zuela 1945eko abenduan. Hurrengo ale baten jasotzen den bezala, hamabostekariaren urte horretako artikulurik esanguratsuenetakoa izan zen, elkarrizketatuagatik noski eta kazetari-pilotariaren idazteko estiloagatik ere, “alaia eta zirrargarria” irakurleen esanetan.

Baina ez bakarrik Hemingwayekin. Felixek hartu-eman estua zuen haren emazte Martharekin ere, eta sasoi baten Habanan bolo-bolo zebilen maitaleak zirela. Marthak 1942an idatzitako *Night Before Easter* ipuinean, Habanan jai giroan igarotako gau bat kontatzen du. Euskal kanta batekin hunkitzen dute emakumea eta Felixgatik idazten

du: “Beti gauza interesgarriez hitz egiten didan pertsona da, eta niri gauza horiek entzutea gustatzen zait. Gainera, Felixen aurpegiak hunkitu egiten nau, eta plazer handia da berekin hitz egitea, haren irribarre ikustea”. Dantzan egiten dute ere, horrela deskribatuz Marthak gau horretako dantza-laguna: “Felixek dantza egiten du, benetan dantzatuko balu gertatuko zenaren beldur balitz bezala, bere burua entregatuz. Dena kontrolpean dauka, dena menderatuta: heldu egiten zaitu eta hortik aurrera badakizu zer izango litzatekeen besoen artean gogorrago estutuko bazintu. Mugimendua gorputzari itsatsita darama eta horrela sentitzen duzu zuk zeuk ere”.

Edorta Jimenez idazle mundakarrak hainbat lan argitaratu ditu amerikarraren gainean, besteak beste, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* eta *San Fermingway*. *Otras historias de Ernest Hemingway*; bietan bere tarteak eskaintzen dio ermuarrari, eta Martha eta Felixen artekoaren zurrumurru ere. Ernesten biografoen arabera, honek Felix aipatzeko “nire aurkaria” esaten zuen. Baina inoiz lehia izan bazuten ere, bere etxean hartu eta elkarrizketa



Ernest Hemingway eta Felix Areitio Habanan, *Cancha* aldizkariarako erretratatuta.

bat eman izana, bi gizonen arteko adiskidetasuna gailenduz zantzu guztiak ditu.

Ermutik kanpo bizi zenean ere, estima handitan zuen bertora etortzea, lagunekin txikito batzuk hartu, kontu batzuk esan... Ezkondu eta seme bat izan zuen. Madrilen bizi zen familia eta, anaien arteko enpresa zela-eta, etengabe bidaiatzen zuen Gasteizera.

1978ko uztailaren 15ean, etxera bueltan zihoala, Somosierrako portua jaisten auto-istripu larria izan eta Madrilgo La Paz Ospitalean hil zen, 63 urte egin baino aste bi lehenago. Madrilen bertan lurperatu zuten, baina bere istorioek bizirik jarraitzen dute.

Miguel Fernández eta Estibalitz González



688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

Irailetik aurrera **PILATES**eko klaseak emango ditugu. Informazio gehiago jasotzeko, deitu edo idatzi 688 61 98 96 telefonora.

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



IRUDI DIGITALARI BURUZKO PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE ERMUKO MERKATARIEK

Ermuko Udalaren webgunean irakurri daitekeenez, herriko saltokiek aukera izango dute irudi digitala hobetzeko prestakuntza programa batean parte hartzeko. Horri esker, merkatariek beren irudi propioa sortu ahal izango dute, irudi hori bezeroei begira indartzen ikasiko dute, eta presentzia digitala hobetzeko gai izango dira, eduki erakarriak sortuz. Prestakuntza saio hauek doakoak izango dira, eta ekainaren 27tik uztailearen 8ra bitartean burutuko dira, 14:00etatik 17:00etara. Informazio gehiago jaso nahi dutenek pe@udalermua.net helbidera idatzi dezakete.


Alboka Musika Eskolaren eguna ospatu zen

Gogotsu zeuden Alboka Musika Eskolako partaideak euren lana plazaratzeko. Bandak, Pispillu abesbatzak trikitilariekin lagunduta, perkusio taldeak eta musika modernoko beste hiru taldek hartu zuten parte eta ikusle ugari bildu zituen haien entzunaldiak. Datorren urterako matrikula irekita dago oraindik, aukera zabalarekin 5 urtetik aurrera eta 99tik beherako edozein musikazalenzat.



Liburutegiak *bookface* erronka jarri du martxan

Udal Liburutegiak *Bookface* Lehiaketa burutuko du udan, argazkigintza eta irakurketa uztartuko dituen ekimena, hain zuzen ere. Parte hartu ahal izateko, sormena erabili beharko da, norberaren aurpegia liburu baten azalean barneratua agertu behar delako. Jarraian argazkia atera, eta posta elektronikoz bidali beharko da biblioteca@udalermua.net helbidera, izen-abizenak eta adina adieraziz. Nahi beste argazki bidali ahal izango dira irailaren 15a baino lehen, eta kategoria ezberdinak egongo dira: 14 urtetik beherakoak, 15 eta 30 urte bitartekoak, eta 31 urtetik gorakoak. Irabazleek liburu sorta bat eta Antzokiko ikuskizun baterako bi sarrera jasoko dituzte. Informazio gehiago behar dutenek Liburutegira jo beharko dute.



Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, beheha · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitxi-denda Tailer propioa Etoju-denda
Senén
1978
Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte
San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi
Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu
943 17 69 76
607 33 11 77
ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

dkt

Debarreneko
Komunikazio
Taldea

Bizi Debarrena

Turismoa dibertsifikazio-iturri



AITZIBER CORTAZAR ALTUNA

DEBEGESAKO TURISMO ETA GARAPEN JASANGARRIKO SAILAREN ARDURADUNA

Aldi oro zalantzan jartzen da turismoak EA Eren ekonomiarari eta euskal gizarteari egiten dion ekarpena, eta, ondorioz, ez zaio ematen ekonomia-jarduera eta enplegua dinamizatzeko faktore gisa dagokion tokia, ezta tratamendua ere. Hala ere, Debabarrenak turismo-eredu jasangarrien aldeko apustua aldarrikatzen du eta horretan dihardu.

2010az geroztik, eskualdeko produktu turistiko nagusia Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen duten Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea da. Biztanle orori zuzendutako 15 irteerek osatzen duten bisita gidatuen programa dauka eta urtean 1.300 bisita baino gehiago eskaintzen ditu. Bisitarietako asko bertakoak dira. Hori horrela, ez bairik gabe, eskualdeko produktu turistikoen garapen handiena kostaldean dugu, horren adierazleak dira, besteak beste, Deba eta Mutrikuko hondartzak, begiratokiak, Donejakue bidea, Mutrikuko Hirigune Historikoa, Santa Maria Eliza, Arrietakua Jauregia, geo-ibilbideak, etab. Produktu guztiak garatzeko eredua jasangarria lantzen eta bideratzen da, hain zuzen, masifikazioa ekiditeko.

Era berean, turismo sektorea ekonomiaren dibertsifikazio iturri dugu eskualdean, enpresa txikiak osatzen dute, gehienak familia-negozioak: bizitza-apustua. Sektoreak neguan enpresei ematen die zerbitzu, udan, berriz, bisitariei. Hori horrela, ostatu-eskaintzari erreparatzen badiogu, Deba eta Mutrikuko

udalerrietan landetxeak eta nekazalturismoak ditugu nagusi, zalantzarik gabe landa-inguruneari eusteko funtsezko elementuak bilakatu dira. Eta kanpinek eskualdeko ostatu-eskaintza handiena osatzen dute. Eibar, Ermua eta Elgoibarrek eskualdeko ohe eskaintza gehiena dute eta udan (ekaina-abuztua bitartean) % 95 baino gehiagoko okupazio-tasak dituzte. Horren erakusle dira azken urteotan Eibarren sortutako alojamendu berriak.

Testuinguru horretan, erronka nagusietako bat eskualde barruko udalerrietan eskaintza turistiko erakargarria eta jasangarria garatzea da. Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna, horren adibide da azken urteotan Dolmenen ibilbidearen inguruan Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek egindako lanketa. Beraz, ditugun elementuetatik abiatuta, ondare industrialari eta eskualdearen nortasunari aukera

turistikoa eman diezaiozun.

Eskualdeko turismo sektorea negozio txikiz osatua dago, landa-eremuaren biziraupenari mesede egiten dio eta ondarea mantendu eta balioan ipintzeko baliabide ezin hobea da. Industrialari den eskualde honetan enpresei zerbitzu ematen die eta bertakook gozatu ditzakegun eskaintza baliatzen du. Beraz, turismo eredua jasangarrienaren aldeko apustua egin dezagun eskualdean.

"Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna"

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Iزارo Aulestiarte

Publizitatea: Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Nagore Dorronsoro

Diseinua eta maketazioa: Zalao Arnaiz

Tirada: 18710 ale



Museoak



Armagintzaren Museoa

Bista-Eder kalea, 10. EIBAR
943 708 446
museoa@eibar.eus
Asteazkenetik larunbatera: 16:00-20:00
Igandeetan: 10:00-13:00




Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa

Arrate Balle auzoa. EIBAR
944 029 099
www.ateri.net
Igandeetan: 11:30-13:30



Makina Erreminta Museoa

Azkue Bailara, 1. ELGOIBAR
943 708 456
museoa@museoa.eus
Astegunetan: 8:30-13:00/14:30-17:30



Mufomi Museoa

Artetxe kalea z/g. (Artetxeko eskola zaharrak). ELGOIBAR
608 416 683
info@mufomi.org
Asteburuetan-jaiegunetan: 11:00-14:00



Hezur Museoa

Artetxe. ELGOIBAR
650 352 566
josejumarquez@gmail.com
Asteburuetan, aurrez ordua hartuta bakarrik.



Nautilus Interpretazio Museoa

Jose Antonio Ezeiz kalea, 3. MUTRIKU
943 603 259 / 943 603 378
nautilus@mutriku.eus



Debako Surf eskola

YAKO

UDAKO IKASTAROAK

> SURF ASTEKOAK
Astelehenetik ostiralera
Iraupena: 7 ordu eta erdi
Ordutegiak:
A) 10:00 - 11:30 B) 12:00 - 13:30
D) 16:00 - 17:30 E) 18:00 - 19:30

BI EGUNETAKO KURTSOA
Iraupena: 3 ordu (ordu eta erdi egunerok)
Aukeratu zuk asteko egunak

ORDU PARTIKULARRAK
Astelehenetik igandera

> MULTISURF
Ekainaren 20tik irailaren 9ra.
Astelehenetik ostiralera
Iraupena: 15 ordu
Ordutegiak: 10:00 - 13:00
Adina: 6 urtetik 13ra

> SURF - SKATE
Astelehenetik igandera
Eskolak orduka
Hastapena eta hobekuntza

PLAZA MUGATUAK
688 743 863 | 943 029 600
www.yakosurf.com
yako@yakosurf.com

> SUP
Astelehenetik igandera
Hastapen eskolak orduka
Hobekuntza eskolak

DEBA-ITZIAR - Mendatagaina



Mendatagaina du inguruotako tokirik kuttunena Josune Arakistain (Lastur, 1996) Huntza taldeko abeslari eta trikitilariak. "Euskal Herria ederra dela badakigu, baina Top zerrenda bat egingo bagenu, dudarik gabe leku hau lehenengo postuetan egongo litzateke", adierazi du. Gustuko ditu bertako "fauna, flora, historia, paisaia eta lasaitasuna (udaran ez horrenbeste)...", eta hitz gutxitan laburbildu du preziatua duen lekua: "Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, gozatzeko eta errespetatzeko labarra".

Zenbait urtez trikitilari txapelketetan ibili ondoren, Huntza taldearekin dabil plazaz plaza lasturtarra, 2014az geroztik. Urteotan, lau disko kaleratu dituzte –*Ezin ezer espero* (2021, Mauka Musikagintza) da horietako azkena–, bidean ehunka oholtza eta leku ezagutuz. Baina, musika esparruan ere, Mendatagain aldeak berezia izaten jarraitzen du Arakistaintzat. "Nire ibilbideko bideoklip garrantzitsuena, *Aldapan gora* abestiarena, bertan grabatu genuen eta oroitzapen zoragarriak dakarzkit".

Aitzuri hormatzar handiaren gainean kokatua, Mendatagainak euskal kostalde osora hedatzen den ikusmira zabala eskaintzen du. Hainbat ibilbide egin daitezke inguruetan; *Itsaslabarraren Sustraiak* (PR-Gi 5001), adibidez. Mendatagaineko behatokitik, Sakonetako senadia, Andutzeko faila (flysch kareduna eta flysch beltzaren artekoa), marearteko zabalgunea

JOSUNE ARAKISTAIN - Musikaria



"Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, errespetatzeko eta gozatzeko labarra"

edo Mendatako ur-jauzi txikia ikus daitezke. Halaber, paisaiaren parte dira hariztiak, artadiak, txilardi-otadiak...

"Gauzetara ohitzen garenean aspertzen garela dio esamoldeak, baina ni ez naiz sekula ohituko leku honetara".

- **Izena:** "Itsaslabarraren sustraiak"
- **Distantzia:** 5,5 km
- **Iraupena:** 01:55 h
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Hasiera:** Itxaspe kanpina
- **Amaiera:** Errota Berri jatetxea

EIBAR - Ixuatik Arratera



Ylenia Baglietto (Eibar, 1986) bide arrakastatsua egiten ari da antzerkiaren munduan. Aktore eibartarra gelditu barik dabil eta azkenaldian *Erresuma* antzezlanean ikusi ahal izan dugu, besteak beste. Pasioz eta maitasunez jarduten du, baina oso lanbide zorrotza da aktorearena eta Yleniak eguneroko joan-etorrietatik ihes egiteko ibilbidea proposatu digu.

Eibartar orok ezagutzen du Ixua eta Arrate arteko bidea, baina ezaguna izanagatik ez du bere xarma galtzen. Gainera, bide horrek esanahi berezia du Yleniarentzat. "Umetan aitarekin egiten nuen ibilbidea da", gogoratzen du maitasunez. "Goizetik etxetik irten eta oinez joaten ginen Ixuara. Frito batzuk jaten genituen han, eta gero, Arratera joaten ginen oinez", gehitu du.

Bide horretan Kalamuako lautadatik pasatzen da bidea eta norbaiti Arratera doan bidea oso erraza iruditzen bazaio, Kalamua, Aizketa, Akondia eta Garagoitiko tontorretara igotzeko aukera ere badu bidetik asko aldendu gabe. Bide asko dago, aukera ezberdinak.

Behin Arratera iritsita, han zerbait bazkaltzeko ohitura zutela dio Yleniak. Orain, jatetxe bakarra dago bertan, Tiro Pitxoia, hainbeste urtetan Arrateko ikurra izan den Kantabria jatetxeak itxi berri baitu atea.

YLENIA BAGLIETTO - Aktorea



"Goizean goiz aitarekin etxetik irten, Ixuara joan eta fritoak jaten genituen han"

XVII. mendean eraikitako elizaz gain, frontoia, sua egiteko parrillak, mahaiak eta zelai handi bat aurkitu ditzakegu Arraten. Yleniak, ostera, beste toki bat nabarmentzen du: gurutzeta. "Bueltak ematen genizkion ligatu ahal izateko", diosku barrez.

- **Distantzia:** 10 km (Ixua-Arrate-Ixua)
- **Zailtasuna:** Erraza / ertaina
- **Interes puntuak:** Usartza, Kalamua, Akondia, Aizketa eta Garagoiti gainak

ELGOIBAR - San Pedroko parkea



Reyes Prados (Sevilla, 1982) Sevillan jaioa da. Han Regin zituen Kazetaritza ikasketak, eta lanak ekarri zuen Euskal Herrira, 23 urte zituela. Bilbo ingurura iritsi zen lehenengo, eta hasierako urteak Sevillatik Euskal Herrira bueltaka eman zituen. Orain dela bost urtetik Elgoibarren bizi da, eta Elgoibar, eta oro har, Euskal Herria izugarri gustatzen zaizkiola dio. Gustuko txoko asko ditu, baina Elgoibarren bat aukeratzeko eskatuta Idotorbe-San Pedroko gunea aipatu du: "Elgoibarren dago, baina aldi berean, ez dago Elgoibarren. Herritik gertu dagoen oasis moduko bat da". Herritik hurbil dago San Pedro, eta oinez zein autoz joateko aukera ematen du. Pradosek aitortu du bera ez dela oso mendizalea eta ia beti autoz joaten dela, baina handik abiatuta, mendi ibilaldiak egiteko ohitura daukala. Kalamuara, Morura, Morkaikora edota Arratera oinez joateko abiapuntua da San Pedro herritar askorentzat.

Pradosen ustez, San Pedrok dena dauka, umeen zein helduen gozamenerako. Frontoia, parkea, barbakoa egiteko parrillak, eta batez ere, bistak: "San Pedrok dagoen ikuspegia zoragarria da, mendi pila bat ikusten dira eta orduak eman ditzaket urrutira begira". Jatetxea ere badago, hamaiketako egin edo bertan bazkaltzeko aukera ematen duena. "Askotan egoten gara gu jatetxeko

REYES PRADOS - Kazetaria



"Herritik gertu dagoen oasis bat da San Pedro"

terrazan zerbait hartzen, eguraldi onarekin. Leku aproposa da, eta neguan taberna barruan goxogo egoten da".

Bakarrik zein familian edota lagun artean gozatzeko aukera ematen du San Pedrok, eta elgoibartar askok aukeratzen dute asteburuetan.

- **Distantzia:** Elgoibartik 4 km-ra dago.
- **Zailtasuna:** Erraza, autoz edo oinez joan daiteke.
- **Aipatzekoak:** Jatetxea dago, eta baita mahaiak norberak etxetik eramandakoa jateko.

ERMUA - **Untzamako gaina**



Igor Astarloak (Ermua, 1976) 2009an utzi zuen txirrindularitza profesionala, lortutako garaipenei esker kirol horretan erreferente bihurtuta. Garaipen horien artean Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa nabarmentzen da, 2003an eskuratu zuena Hamiltonen (Kanada). Garai hartan Untzama ingurura joaten zen Igor sarritan, eta gaur ere, bere lekurik kuttunen artean dago mendi hura. Ermuko Santa Ana auzotik abiatu behar da bertara joateko, Abeletxe baserria igaro, eta maldan gora jarraitu lautada batera heldu arte, ezkerretarako bihurgunea hartu baino lehen. Handik, zuzen joanda, Untzamako mugarrira heltzen da, Ermua, Eibar eta Zaldibarrek bat egiten duten tokia adierazten duen trianguliformako harrira, alegia.

"Lasterketa aurreko egunetan, goizetan entrenatu, eta arratsaldetan Untzamara joaten nintzen. Denbora asko igarotzen nuen bertan dagoen harrian eserita, lasai, pentsatzen, meditatzen-edo". Izan ere, ermuarraren iritziz, Ermua inguruko txokorik politena da hau, Sallabente gainetik Ermuko hainbat auzo ikusten direlako, Oiz mendia, Egoarbitza... "Paseotxo bat da, gogorra, hasieratik maldan gora joan behar delako, baina ederra!". Paisaia ikusi eta gero kirola egiten jarraitu nahi dutenak Elorretaraino joan daitezke: "Orain dela gutxira arte jarraitu dut bertara joaten. Txikitako oroitzapen politak dakarzkiz,

IGOR ASTARLOA - Txirrindulari ohia



"Lasterketa aurreko egunetan, denbora asko igarotzen nuen bertan, lasai, pentsatzen"

bertan zegoen tabernaraino joaten bainintzen askotan".

Azken bi urteetan Mutrikun bizi den arren, Astarloak ondo gogoratzen ditu inguruko ibilbideak, oinez, korrika, zein bizikleta gainean egitekoak. Negurako, esaterako, Errekaldetik gora doan bidea egitea gomendatzen du, Berano auzoa, Trabaku, Osma eta Areitio zeharkatuta Ermura bueltatzen dena.

- **Distantzia:** 700 metro.
- **Zailtasuna:** Erraza.
- **Interes puntuak:** Ermuko auzoak, Oiz eta Egoarbitza mendien begiratokia.

'Elosua-Plazentzia' liburua aurkeztu dute Karakaten

E kainaren 19an, Soralezeko, Elgoibarko eta Bergarako alkateek, Aldundiko kultura diputatuak eta Aranzadiko ordezkariak *Elosua-Plazentzia* izeneko liburua aurkeztu zuten Karakaten, azken urteotako indusketetan lagundu duten hainbat boluntariorekin eta ekitaldira hurreratu ziren dozenaka herritarrekin batera.

Elosua-Plazentzia liburua argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua. Hasierako ataletan, Muskiritzu mendilerroaren ezaugarri geologiko

eta kulturalen berri ematen du, eta, ondoren, XX. eta XXI. mendeetan inguru horretan egin diren azterketen eta aurkitu diren monumentu (21) eta pieza nagusien inbentario zehatza aurkezten du, azken urteotan ezagutu diren datu berrien eta egin diren zaharberritze-lanen gaineko informazioarekin batera. Horrez gain, argitalpenak estazio megalitiko osoa irudikatzen duen oinarritzko mapa bat ere badakar.

Mendeurrenaren harira

Hain justu, aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek

eta Egurennek Muskiritzuko mendilerroan aurkitutako lehen aztarna megalitikoaren gaineko liburuxka argitaratu zutenetik eta Aranzadik data seinlatu hori baliatu nahi izan du *Elosua-Plazentzia* liburua argitaratzeko.

Jesus Tapia Aranzadiko kideak aitzindari izan ziren hiru arkeologo ezagunen lana goretsi zuen

Argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua



DOLMENEN IBILBIDEA



MENDIA ETA ITSASOA
TALAI A BERETIK

Zatoz historiaurrean
zehir ibiltzera!

BISITA GIDATUEN EGUTEGIA

Uztailak 12, asteartea (Gaztelania)
Abuztuak 15, astelehena (Gaztelania)
Irailak 25, igandea (Euskara)
Urriak 2, igandea (Gaztelania)
Urriak 9, igandea (Euskara)

Bisitetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez 657 794 677 telefonoan edo ondorengo helbidean izena ematea:
www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak

Bisita guztiak 10:00etan hasiko dira Karakateko aparkalekutik.





Elgoibarko, Soralezeko eta Bergarako alkateak eta Aranzadiko teknikaria (ezkerretik hirugarrena) liburua eskutan dutela.

Aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek eta Egurennek lehen liburuxka argitaratu zutenetik

gauza gutxi aurkituko genituela, baina harrিতa eta oso pozik nago jasotzen ari garen emaitzekin. Oraindik badago partida. Ari gara beste teknologia eta ikuspegi batzuekin informazioa biltzen eta ondorengoek ere gure lana errebisatu eta osatuko dute".

Liburua salgai

Amaieran jakinarazi zutenez, liburua salgai izango da Dolmenen Ibilbidea proiektua bultzatzen diharduten hiru udalerrietan: Soraluzen eta Elgoibarren udaletxeetako harreran eta Bergaran Laboratoriumean. 5 euroan salduko dute.

aurkezpenean: "Garai hartan ezer gutxi genekien fenomeno honen inguruan. Esplorazio batzuekin zeuden Aralar eta Aizkorri inguruetan eta Muskiritzukoa izan zen Euskal Herrian ezagutu den adibiderik zaharrenetako bat. Orduan ere esaten zuten oso eremu interesgarria zela, ez bakarrik elementuen kopuruagatik baizik eta sakabanatuta eta multzoka

antolatuta dauden moduarengatik ere bai. Garai hartan egin zituzten lanak oso zorrotzak izan ziren ordurako".

Azken urteotako lanari erreparatuz, berriz, arkeologoa gustura agertu da lortzen diharduten emaitzekin: "Orain, ia ehun urte geroago, berriz hasi garenean industen, ematen zuen

Arrate Bailara, 34
(AZITAIN gaina)

RRIARTE

Hotel Asador ***

943 702 967 www.hotellarriarte.com

ERRESERBAK: reservas@hotellarriarte.com

Enpresentzako egongelak
alokairua
Jatetxea
Menu eta Karta
Ospakizunak
Logelak

ZURE OSTATUA
Eibar erdian eta Euskal Herriaren bihotzean

eibarrooms AUTO CHECK-IN

www.eibarrooms.com
Ego Gain, 17 ac

ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA

AZKUE AUZOAN, 1
20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

T. 943 748 456

www.museoa.eus
museoa@museoa.eus

Mélida Ostatua

Debabarreneko betiko ostatua

Bizkiala Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

www.melidaostatua.com

DEBA
627 325 135

IPAR
SURF & SKATE BSKOLA

Web: iparsurfskate.com
Instagram: @iparsurfskate

Hotel Arbe
Ego bitartean daren arretan

Laranga auzoa 2/g
Mutriku eta Deba artean
Tel: 943 604 749
www.hotelarbe.com

MALLABIA - Trabakutik Trabakura



Mallabikoa den arren, duela urte gutxi aurkitu zuen Karmele Gisasola (Mallabia, 1994) herri-kirolariak Trabakun hasi eta bukatzen den mendi buelta hau, eta ordutik, hainbatetan egin du. Trabakun Ermurako bidea hartu behar da, eta Donai baserriaren parean dagoen porlanezko aldapan gora egin behar da. "Atzealdean Oiz mendia izango dugu, eta eskumatara Mallabiko auzo ezberdinak eta Anboto", azaldu du. Aldapa hura bukatutakoan, ezkerretara dagoen baso pista zabalenetik jo behar da, Asuntzako bidegurutzeraino. Bertatik Markina-Xemeinera, Urkora edo Mallabiko Berano Txiki auzora jaitsi daiteke, eta Gisasolak azken bide hau hartu ohi du, Berano Nagusirako norabidean. Auzo horretako ermitara heldu baino lehen, Egia baserriaren atzeko pista hartu eta lehengo bidegurutzera helduko gara. Eta hortik Trabakura berriro ere.

Hiru orduko bide hau oinez, bizikletaz edo motoz egin daiteke, eta Karmeleren esanetan, mendiaz, basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du. "Konfinamendura arte ez nekien pista hauek zeudenik, ezta haien artean lotura egiteko aukera zegoenik ere, eta ziur nago beste herritar askok ere ez dutela honen berri izango".

Karmele Gisasola Euskal Herriko txapelduna da harri-jasotzen, ingudean eta banakako pentatloian, eta sasoiari daudenei, bide horretatik Mendibil eta Urko mendietara igotzeko gonbita egin die. Inguru

KARMELE GISASOLA - Herri kirolaria



"Basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du ibilbide honek"

horretan dago Arteta ermita ere: "Hamaika istorio entzun ditugu ermita honen inguruan, gure arbasoek festa egiten zutelako bertan. Hala ere, gaur egun horma batzuk baino ez dira geratzen".

- **Iraupena:** Hiru ordu inguru.
- **Zailtasuna:** Ertaina.
- **Nabarmenezkoa:** Porlanezko bideak mendi ibilbideekin tartekatzen dira, eta kotxeen zarata mendiaren isiltasunarekin. Horrez gain, Oiz eta Anboto mendiak bertatik bertara ikus daitezke.

MENDARO - Lizarpe gaina



Makina bat aldiz zapal dutako gaina duen arren, beti iruditu zaio berezia Lizarpe ingurua Maite Maiora (Mendaro, 1980) mendiko korrikalariari. Umetako eta nerabezaroko oroitzapen asko hangotxeak ditu, eta gaur ere, sarri egiten du harako bidea, lasaitasun bila. Eguneroko entrenamenduetan maiz igarotzen da Lizarpetik, eta paradoxikoa dirudien arren, hauspoa berotuen daramanean ere hantxe hartu du ohi du arnasa ondoen. "Hango larrea, behorren zintzarriak, amen atzetik jolasean dabiltzan moxalen intziriak, bazka-bazka ari diren ardién patxada... Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak (626 metro)".

Ura eta harria da Mendaro, eta horrek egiten ditu bertako parajeak horren berezi. Mendaro Geoparkean sartuta egon ez arren, Geoparkeko kostaldearen ederra begi kolpe batez ikusteko talaia ezin hobea da Gaintxipia mendia. Alde batera, Deba-Zumaia arteko kostaldea, Lastur eta Itziarko mendi-gainak; beste aldera inguruko mendi-tontor mitikoak: Oiz, Anboto, Erlo, Udalaiz... "Zer ez da ikusten han goitik! Bizi garen lekuan bizitzeagatik, zein zorionekoak garen konturatzeko ere balio du hara igotzeak", dio. Igoera errazeko mendia da Gaintxipia. Mendaroko plazatik 4 kilometro pasatxoko bidea dago errepidex Lizarperaino, eta

MAITE MAIORA - Korrikalaria



"Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak"

handik gora, 330 bat metro. Baina mendia aisialdirako duenak eta kilometroak pilatzeko afizioa duenak nekez aukeratu ohi du bide zuzena. Lizarpera zortzi bihurguneen bidetik igotzea gustukoagoa du Maiorak. "Bide zoragarria da, Kilimon bailaran barneratzeko".

- **Distantzia Mendaroko plazatik:** 4 kilometro pasa dago oinez Lizarpera, bide zuzenetik. Handik Gaintxipia tontorrera (626 metro) 300 bat metro.
- **Zailtasuna:** Erraza

MUTRIKU - Burumendi



Andoni Basterretxea (Mutriku, 1964) Delirium Tremens taldeko abeslari eta gitarra-jolea da. 1985. urtean sortu zuen taldea Patxi Irisarri eta J. J. Yurritarekin hirukoa osatuz, eta gerora, Iñigo Muguruza batu zitzaien. Handik aurrera, laukote gisa funtzionatu zuten. 1991n desegin zuten taldea, baina 2019an berriz elkartu ziren, Iñigo Muguruzaren omenezko kontzertu batean parte hartzeko. "Eta, berotu egin ginen", esan du Basterretxeak. "Denok musika jotzen jarraitzeko gogoz geunden, eta kanta berri batzuk sortzea erabaki genuen, disko berria osatzeko". Horrela, 2021ean, taldea desegin eta 30 urtera, eszenatokietara itzuli ziren.

Mutrikun dauka sorlekua taldeak, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko erpinean, Bizkaiarekiko mugan. Iparraldean Bizkaiko golkoa; hegoaldean Mendaro; ekialdean Deba; eta mendebaldean Ondarroa, Berriatua eta Markina (Bizkaia) ditu mugakide. Mutrikuk arrantza bere-berea izan du, eta udalerraren armarrarian ere arpoiz jotako balea ageri da. Bereziak ditu kaleak, eta bereziak inguruak ere. Hondartza du, eta mendiz inguratuta dago. Basterretxeak Burumendi ingurua du gustukoena, ume-umetatik. Hirugarren hondartza gainean dago, flyschean barneratuta. "Umetatik gustatzen zait, oso leku berezia da niretzat. Neguan ere

ANDONI BASTERRETXEA - Musikaria



"Pretilean eseri eta Burumenditik itsasoari begira egotea gustatzen zait"

txakurra hartuta, sarritan joan nintzen". Pinuak zeuden lehen, baina orain garbituta dago dena, eta bidea ere berrituta dago: "Pretilean eseri eta itsasora begira egotea gustatzen zait, lasai. Oso leku polita da".

- **Distantzia:** Herrian bertan dago, portutik gertu.
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Interes puntuak:** Portua, hondartzak, taberna dago

SORALUZE - Lau Baselizen Ibilbidea



Pedro Lete (Soraluze, 1953) ibiltari askoa da. Ezustekorik ez bada egunero egiten du ibilbide bat, normalean bidegorritik, baina giro ona badago gora, mendira joaten da. Ibiliaz ezagutu ditu ibilbideak. Horietako bat da Lau Baselizen Ibilbidea.

Ibilaldi "oso polita" delako aukeratu du. "Ia lau ordukoa da, baina barruan dago sartuta argazkiak ateratzea gehi paisajeak ikustea", dio Letek.

Ezozki-bidea da abiapuntua, handik gora hartu eta Ezozki auzora jo behar baita. "Ezozikoa da lehen ermita; hura ikusi eta gero gora segi eta bertan dago San Rokeko ermita. Ondoren, hartu behar da hormigoizko bidea, errepide handiko bidegurutzera iritsi arte. Hor, errepidetik beherantz hartu eta San Andres auzora iritsiko zara; han dago hirugarren ermita. Gero, San Andrestik Txurrukarako bidea hartu behar da, bidegurutzera ailegatu arte; han, berriz, beherantz, Osuma baserrirantz, Txurrukara ailegatu arte. Hantxe dago laugarren ermita: San Inazio. Eta ibilaldia borobiltzeko, Txurruka jatetxean hamarretako edo bazkari ederra egin!".

Pedro Letek esan du familian egiteko moduko ibilaldia dela: "Aldapa dago, baina dena da asfalto, ez dago harri artean edo sasi artean ibili beharrik, garbi-garbi dago. Nik urtean bizpahiru bider egiten dut. Urtaro guztietan egin daiteke eta bidean denetik ikus daiteke: katamixarrak, azeriak, kukuak... Landare

PEDRO LETE - Ibiltaria



"Ermitak, auzoak, animaliak, landareak eta paisajeak... denetik ikus daiteke"

aldetik ere denetik dago, farmazia bat da: berbenak, milamores edo belar bedeinkatua, pasmo belarra, kukufrakak, teresitak, zaingorria, zentaurea, pasiflora... Etorri eta ikusi".

- **Distantzia:** 15,29 km
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Aipatzekoak:** Ezozki auzoa eta Ezoziko Andre Mariaren ermita, San Roke ermita, San Andres auzoa eta San Andres ermita eta Txurruka auzoa eta San Inazio ermita.

AGENDA

DEBA

Ekainak 25	22:00	"Olatu arteko txalupa arraroa"	Ikuskizun musikatua eta poesia	Plaza Zaharrean
Uztailak 1	22:00	"TENE"	Bertso saioa	Plaza Zaharrean
Uztailak 2	19:30	Debako Musika Banda	Kalejira	Herriko kaleetan zehar
Uztailak 6-10	-----	Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 8	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uztailak 9	22:00	Aitzuri Abesbatza	Kontzertua	Elizako klaustroan
Uztailak 15	22:00	"GenEroa"	Dantza ikuskizuna	Plaza Zaharrean
Uztailak 22	22:00	Habi	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Uztailak 29	22:00	"Album"	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 30	23:00	Musika Banda	Dantzaldia	Foruen plazan
Abuztuak 6-10	-----	Itziarko Kopraixak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 13	-----	Deba-Reus topaketa	Herralde katalanetako ekimen kulturalak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18	-----	San Roke jaiak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar

EIBAR

Ekainak 28-30	22:30	Ikus-entzunezkoen astea	-----	San Andres elizako klaustroan
Uztailak 3	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 8	22:00	Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 8-10	-----	Amaña auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10	-----	Lambretta Eibar XVII Topaketa	-----	-----
Uztailak 10	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	Amaña auzoan
Uztailak 15	23:00	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 15-17	-----	San Kristobal auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 4-11-18-25	22:00	Zinema kalean	Zinema	Untzagan
Abuztuak 6	-----	San Salvador jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Azitain auzoan

ELGOIBAR

Ekainak 24	19:00	Nahaste Borraste kirol proba	-----	Kalegoen plazan
Ekainak 25	09:00	Nekazari eta ganadu feria	-----	Kalebarren plazan
Ekainak 28,29,1,2	-----	San Pedroko jaiak	Ekimen ezberdinak	Idotorben
Uztailak 8-10	-----	Urazandiko jaiak	Ekimen ezberdinak	Urazandi auzoan
Uztailak 8	22:30	'Elkano, lehen mundu bira'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 9	22:30	'Padre no hay más que uno'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 15	22:30	'Wonder woman 1984'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 16	22:30	'Corre como una chica'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 22	18:00	Folklore jaialdia	Dantzaldia	Maalako parkean
Uztailak 23	22:30	'La pequeña Suiza'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 24	10:30	Pilota txapelketa	Kirola	Sigma auzoan
Uztailak 24	-----	Sargoateko erromeria	Erromeria	Sargoaten
Uztailak 29	22:30	'Greenland: el último refugio'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 30	22:30	'Agur Etxebeste'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Abuztuak 3	-----	Santumotz Eguna	-----	Santumotz lautadan
Abuztuak 6	-----	Sallobenteko jaiak	Ekintzak egunean zehar	Sallobenten
Abuztuak 10	-----	San Lorentzo Eguna	Meza	Sallobenten
Abuztuak 16	-----	San Roke Eguna	-----	Azkue auzoan
Abuztuak 23-28	-----	San Bartolome jaiak	Herriko jai nagusiak	Herri osoan zehar
Irailak 2	-----	San Antolin Eguna	Arriaga auzoko festak	Arriaga auzoan

ERMUA

Uztailak 2	-----	Afrika-Ermua V. Jardunaldiak	Hainbat ekitaldi	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 7-10	-----	San Lorenzo auzoko jaiak	Hainbat ekitaldi	San Lorenzo auzoan
Uztailak 8-9	-----	Neska gazteen II. Topaketak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 15	17:30	Zirika Zirkus	Ikuskizuna	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	23:30	Skakeitan	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 18	22:30	Rafa Rueda	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 19	22:30	Petti	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 23	22:30	La Oreja de Van Gogh	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 24-27	-----	Ermuko Santixau jaiak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Abuztuak 1	22:00	'Jojo Rabbit'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 2	22:00	'Explota Explota'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 3	22:00	'Space jam. Aro berria'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 8	22:00	'La boda de Rosa'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 10	22:00	'Jungle Cruise'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 17	22:00	'Cuñados'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 22	22:00	'Errementari'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 24	22:00	'A todo tren'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan

MALLABIA

Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Herriko txoko ezberdinetan
----------------	-------	------------------	-------------------	----------------------------

MENDARO

Uztailak 2	16:00	Jabier Ezenarro Oroitzarrea	Txirrindularitza	-----
Uztailak 8	19:00	Gararock jaialdia	Aurkezpen kontzertua	Santa Kruzkuako parkean, Azpilgoetan
Uztailak 22-26	-----	Santa Ana jaiak	-----	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	-----	-----

MUTRIKU

Uztailak 1-3	-----	Elkano Mundubira	-----	-----
Uztailak 2	22:00	Herriko elkarteen kontzertua	-----	Plazan
Uztailak 2	-----	Mutrikuko Bandera	-----	-----
Uztailak 16	-----	Merkatu txikia eta atun errea	-----	-----
Uztailak 16	22:00	Anaiarte abesbatzaren kontzertua	-----	-----
Uztailak 21-25	-----	Malen jaiak	Ekimen ezberdinak	Herrian zehar
Uztailak 30	22:00	Kantu bat gara	-----	-----
Abuztuak 3	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 10	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 17	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 6	22:00	Neomak	-----	-----

SORALUZE

Uztailak 9-11	-----	San Andreseko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 22-26	-----	Soraluzeko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	10:00	Dolmenen ibilbidea	Bisita gidatua	Karakaten

Turismo etikoa Debabarrenean

Euskadiko Kode Etikoaren bueltan jasotako prestakuntza eta konpromiso ibilbidea osatu duten turismo eragileei Kode Etikoaren zigilua eman die Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 530 enpresak eta erakundek jaso dute aitortza 2020an kode hau sortu zutenetik, eta horien artean Debabarreneko hamazazpi enpresa eta erakunde daude.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismorako Munduko Kode Etikoaren egokitzapena da, gure kulturaren eta nortasunaren berezko ezaugarrietan oinarrituta eta 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan oinarrituta.



- Arriola Txiki (Deba-Itziar)
- Begi Bistan
- Belaustegi Baserria (Elgoibar)
- Debabarrena Turismo
- Debako Turismo Bulegoa
- Eibarrooms Auto Check-In (Eibar)
- Endañeta Berri (Deba-Itziar)
- Euskal Kostaldeko Geoparkea
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Mélida Ostaturua (Ermua)
- Mutrikuko Turismo Bulegoa
- Txurruka Jatetxea (Soraluze)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Perlakua Saka (Deba-Itziar)
- Txindurri Iturri (Deba-Itziar)
- Zubeltzu Torre (Deba-Itziar)
- Zumardi (Deba)

BELAUSTEGI
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR 943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

Ermuarrek egindako hainbat pintxok saria jaso dute lehiaketa ezberdinetan

Ekainaren 13tik 19ra burutu da aurtengo Ermuko Pintxo Lehiaketa, XXII. Jardunaldi Gastronomikoen baitan, eta Sagarra tabernak lortu du lehen saria. Sagarrak "Pani-Tun" izeneko mokadua aurkeztu du lehiaketan, *pani puri*, hegalabur eta berakatz zu-riarekin egindako mokadua, hain zuzen ere. Lobiano Gastronomía Elkarteak jakinarazi duenez, Giroa tabernak irabazi du pintxo tradizional onenaren saria, sekretu iberikoarekin, arrautza-gorringoarekin eta patatarekin egindako "Asiertxo" lanagatik. 0



Kilometroaren atalean, Urkaregi jatetxeak eskuratu du lehen saria, "Ven 3 Ka" proposamenarekin, eta Carlos Serres ardoarekin ongien uztartzen den pintxoari saria Zutabe tabernarentzat izan da, pikillo gozoarekin egindako bakailao-brandadagatik. Azkenik, Amatxi tabernak jaso du boto herrikoia saria, "Baso sorginduekin".

Bestalde, Bizkaiko Pintxo Lehiaketako bi sari ere Ermuan geratuko dira. Ekainaren 21ean burututako finalean, Mendiola tabernako José Manuel Rodríguezen "Cornpork" pintxoia izan zen garailea; bigarren saria Durangoko Kobika tabernak jaso zuen; eta hirugarren postua Kiska tabernako Andoni eta Julen Pérez anaientzat izan zen, "Singapur" proposamenagatik. Amatxi taberna ere finalera heldu zen, eta finaletik kanpo geratu ziren Giroa eta Sagarra.

V. AFRIKA-ERMUA JARDUNALDIAK BURUTUKO DIRA UZTAILAREN 2AN

Afrika-Ermua jardunaldien bostgarren edizioa uztailaren 2an burutuko da Orbe Kardinalaren plazan. 12:00etan Afrika-ko dantzen ikuskizuna eskainiko du M'lomp Cultural taldeak eta jarraian, Misiones Diocesanas Vascas elkartearen eskutik, Kenyako Kaikor Proiektuaren erakusketak, umeentzako jolasek eta Afrikako eskulaneak hartuko dute plaza. 14:00etan Afrikako bazkari herrikoia egingo da eta 17:00etan kontzertua eskainiko du Lina Charifek. 18:30ean, Senegaleko borroka libre erakustaldia egongo da, Bakh Yayeren yembeek girotuta. Iluntzean musika bueltatuko da: 20:30ean Ernesto Miari & Sara bikotearen Mix Latin Sounds saioa izango da, eta 23:00etan Bogi Jui - Sonidos de la Tierra kontzertua.

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusiboak:

Allianz 
Seguros

Nü Shu, Ermuko neska gazteen taldea:

"Egunerokotasuneko zapalkuntzak identifikatuta ditugu, orain ekintzara pasatu behar gara"

Duela zazpi urte inguru Ermuko hainbat neska gaztek hartu zuten Nü Shu taldearen gidaritza eta, urte zailak igaro dituzten arren, badoaz bidea egiten. Uztailaren 8an eta 9an II. Topaketak burutuko dituzte.

- Noiz hartu zenuten Nü Shu taldearen lekukoa?

Duela sei edo zazpi urte, herriko gazte batzuk Emakumeen Topalekura joaten hasi ginenean. Momentu hartan gazte feministen borrokaren mugimendua galduta zegoen, eta Nü Shu taldea birsortzeko proposamena egin ziguten.

- Zenbat kide zarete?

Taldeak gorabeherak izan ditu, eta momentu honetan gaude kide gutxien, zortzi. Uste dugu herriko beste talde gehienetan ere gauza bera gertatzen dela, eta kide berriak behar ditugu guztiok.

- Zein da Nü Shuren helburua?

Taldea hartu genuenean gure asmoa zen neska gazte feministen mugimendua berpiztea, belaunaldi gazteetan gabezia bat ikusten genuelako. Azken urteotan egin-dako hausnarketa ezberdinen ostean, bi lan ildo zehaztu ditugu aurten. Horieta-ko bat barrura begira dago: gure taldea formakuntzaz elikatzea, gai ezberdinen inguruan hausnartzea... Beste lan ildoak Ermuko neska gazteen sarea sortzea du helburu, eta neska horiek feminismoaren borrokara batzea. Aktibazioa da xedea.

- Formazioari dagokionez, zein gai landu dituzue?



2021ean burututako I. Topaketetan, Eitzagan.

Orain feminismo antirrazistan trebatzen ari gara, esaterako.

- Kanpora begirako ekintzarik egin duzue dagoeneko?

Bai, urtero Jai Batzorde Feminista egiten dugu, eta arrakasta handia du: brigada morea, protokoloak... Horrez gain iaz I. Topaketak egin genituen Eitzagan, eta oso balorazio positiboa egiten dugu. Halaber, beste herri batzuetako feminista gazteekin elkarlanean gaude.

- Kanpora begirako ekintzetan, nola hartzen zaituztete?

Ekintzaren arabera: formakuntzetara gazte gutxi datoz; jai giroan burutzen diren ekintzetara, aldiz, emakume gehiago hurbiltzen dira. Martxoak 8an, esaterako, lagun asko batzen dira. Dena den, aipatu dugun bezala, herria ahulduta dago, eta asko kostatzen da jendea mobilizatzea, batez ere gaztetxoak, hori da guretzat gauzarik zailena. Frustrarria da ikustea atzerapausoa egin dugula, edo aktibazioa galdu dela.

- Zein esparrutan eragin nahiko zenukete bereziki?

Hainbat esparrutan. Neska eta gazte moduan ikusten dugu egunerokotasunean zein zapalkuntza pairatzen ditugun (jaietan, sare sozialetan, lan munduan...), identifikatuta ditugu dagoeneko, eta orain ekintzara pasatu behar gara. Indibidualtasunetik kolektibotasunera egin behar dugu jauzia.

- Uztailaren 8an eta 9an II. Topaketak burutuko dituzue...

Bai, plazan egingo ditugu, herrian dugu presentzia indartzeko. "Piztu sua" da aurtengo lema, eta egitarau zabala prestatu dugu, tartean tailerrak, hitzaldiak, bazkari, gosari eta afariak (tiketak aldeztu aurretik egongo dira salgai). Haien helburua da neska gazteak saretzea, kide berriak gure taldera batzea, aktibazioa eta gune eta espazio seguruak sortzea, besteak beste.

Dorleta Vidal

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Euskal Birusak bi ekitaldi antolatuta ditu Santixau jaietarako

Uztaila ate joka dago, eta harekin batera makina bat ekitaldi burutuko dira Ermuan, Santixau jaiak berotuko dituztenak. Horien artean daude Zirika Zirkus konpainiaren *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna eta Pettiren kontzertua, Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatuta, Ermuko Udalaren Kultura eta Euskara Sailen laguntzarekin.



Aurkitu gabeko altxorra
Zirika Zirkus konpainia
Umeentzako ikuskizuna
Uztailaren 15ean, ostirala, 17:30ean.
Orbe Kardinalaren plazan.

Antzerkiz, zirkuz eta umorez betetako ikuskizuna da *Aurkitu gabeko altxorra*. Lan honek piraten irudi zintzoagoa eraikitzea du helburu: berdintasunetik eta aniztasunetik abiatua eta aurreiritzirik gabekoa.

Petti
Bakarkako kontzertua
Uztailaren 19an, asteartea, 22:30ean.
Martxoaren 8a plazan.

Petti musikari eta abeslari nafarrak urteak daramatza abestiak sortzen eta kontzertuak ematen. Bere ibilbide luzean kantutegi aberatsa sortu du, estilo anitzekoa. Bakarkako kontzertuetan, alerik zirrargarrienak eta ederrenak eskaintzen ditu, girora eta jendera egokituak. Hala, kontzertu bakoitza da bakarra, berezia, errepikaezina.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Rubén Torres, korrikalaria:

“Modalitate ezberdinetan jardun nahi dut, nire gustukoena topatzeko”

Zegama Aizkorriko Kilomero Bertikalean parte hartu du aurten Rubén Torres ermuarrak lehen aldiz, eta sentsazio gozoarekin bukatu du lasterketa hura. Kirol honetara heldu berri den arren, sasoiaren eta gogotsu dago.

- Maiatzaren 27an burutu zen aurtengo Zegama Aizkorriko Kilometro Bertikala, Arrianditik Iraulera (1.015 metroko desnibelarekin). Nola baloratzen duzu esperientzia hura?

Oso esperientzia ona izan da. Zati neutralizatuan (2.200 metro) apur bat hotza egon nintzen hasieran; kronometratuan (3.000 metro), aldiz, oso gustura. Berrehun korrikalari baino gehiagoren artean, 27. postuan geratu nintzen, eta ez nuen espero. Izan ere, duela urtebete eskas hasi nintzen nire kabuz korrika egiten, 2021eko udan.

- Dortsala lortzea ez zen erraza izango...

Ez, ez da erraza izaten, baina nik ez neukan parte hartze-ko asmorik. Hala ere, aukera eman zidaten maiatzaren hasieran, ezustean, eta baietza eman nuen. Ordura arte errepidean entrenatzen nuen, eta



hiru aste baino gutxiago izan nituen mendian entrenatzeko.

- Zure kabuz entrenatzen duzu oraindik ere?

Ez, abenduan Santi Pérez entrenatzailearekin hasi nintzen lanean, Asier Cuevas, Diego García edo Julen Terán bezalako kirolarien prestatzailearekin, alegia. Eta urtariletik aurrera, Goierri Garaia taldeko kidea naiz, Maite Maiora mendi-korrikalariaren bikotekideak egindako bitartekari lanari esker.

- Nolakoak izaten dira entre-

namendu hauek?

Astean sei egunetan entrenatzen ditut, eta egun arruntetan entrenatzaileak agindutakoa egiten dut nire kabuz. Ostiralean, aldiz, Zumarragako Argixao Atletismo Eskolan biltzen gara taldeko kide guztiok, eta saio batzuk egiten ditugu Pérezekin. Beroketa eta luzaketak egiten ditugu, teknika landu, eta neurtu, entrenamenduak planifikatu ahal izateko.

- Zure kabuz egiten zenituen entrenamenduekin alderatuta, oso desberdinak dira?

Bai. Egunean ordubete pasatxo entrenatzen dut orain, eta Eibarreraino joaten naiz, beste batzuetan Aixolako urtegiara, Sorluzeko bidegorrira... Nire kabuz joaten nintzenean, aldiz, ero-eroan entrenatzen nuen: Maltzagaraino askotan, bidean Urkora igota.

- Zenbat lasterketatan lehiatu zara dagoeneko?

Lehenengoa Karakateko igoera izan zen, iazko azaroan, eta nahiko ondo ibili nintzen. Ordi-ziako krosean parte nuen gero, UZ Trail lasterketan, eta 10.000 eta 3.000 metroko lasterketan pistean, besteak beste. 10.000 metrokoa Euskadiko Txapelketa izan zen, eta 6. postuan geratu nintzen, ez da gutxi! Dena den, duela gutxi hasi naizenez, diziplina ezberdinak probatu nahi ditut, hoberen datorkidana eta gehien gustatzen zaidana aurkitzeko.

- Baduzu ahulgunerik?

Jaitsierak ez zaizkit gustatzen, ez naiz batere trebea, neurri batean ez ditudalako entrenatu. Momentuz, beraz, mendian bertikalak bakarrik egingo nituzke.

- Aurretik ere sasoiaren zeunden edo kirolarekin duzun lehen kontaktua izan da hau?

Igeriketan ibili izan naiz betidanik, eta 2015ean federatu eta txapelketetan parte hartu izan dut. Baina oso kirol ezberdinak dira. Igeriketa korrika egitea baino gogorragoa da, pulstua oso altu daramazu une oro.

- Zein da zure helburua kirolean?

Entrenatzen gozatzen dut, eta nire helburua momentuz hori da: hobetzea eta disfrutatzea.

Dorleta Vidal

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

[@LEYTHEBARBER](https://www.instagram.com/LEYTHEBARBER)
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

FERNANDO DOSANTOS

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Udako oroitzapenak ditut batez ere. Cillerosera (Extremadura) joaten ginen, eta lehengusu eta lagun guztiak elkarrekin bainatzen ginen igerilekuetan.

- Zer irakatsi zizuten gura-soek?

Zintzoa izaten eta errespetuz jokatzeko, baina bizitzak erakutsi dit ez dela beti horrela jokatu behar.

- Umea zinenean, zer izan nahi zenuen?

Arotza. Aitari laguntzen nion batzuetan konponketak egiten, agian horregatik...

- Eta zertan egiten duzu lan?

Herri ezberdinetako merkadilloetan fruta saltzen. Aitak Eibarko Guisasola lantegian egiten zuen lan asteburuetan, eta astean zehar fruta saltzen hasi zen merkadilloetan, 1983an. Garai hartan BBBko 3. mailan nengoen, eta aitari laguntzen hasi nintzen. Berak utzi zuenean, animatu ninduen fruta saltzen jarraitzera.

- Zer ordutan hasten zara lanean?

4:30ak aldera fruta erostera joaten naiz.

- Zer da saltzaile lanaz gehien estimatzen duzuna?

Oso pertsona eta produktu ezberdinekin egiten dudala lan. Gainera, esparru horretan oso jantzita nago, eta gustatzen zait bezeroek galderak egitea.

- Eta gutxien?

Merkadilloari mespretxuz begiratzen zaiola, eta Udal askorentzako hutsaren hurrengoia garena.



Ermuan jaio zen duela 55 urte. Arreba bat du, bera baino urte eta erdi gazteagoa. Ezkonduta dago, eta bi seme-alaba ditu. Ia berrogei urte daramatza merkadilloz fruta saltzen. Gizon berbatia, alaia eta jakin-minez betea.

- Gazteak gerturatzen zaizkizue?

Bai, baina hainbat herritan merkadilloa desagertzeko bidean dago. Ermuan eta Eibarren, esaterako, posturen bateko jabea jubilatzen denean, ez da onartzen beste pertsona batek postu hori hartzea. Ondorioz, gero eta postu gutxiago daude.

- Emaztea alboan duzu...

Bai, azken 22 urteotan elkarrekin egiten dugu lan.

- Non ezagutu zenuen?

Eibartarra den arren, Durangon ezagutu genuen elkar, Txori Soro diskotekan.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Txikitatik marrazten dut, eta 10 urte daramatza margotzen, maite dut. Hainbat koadro saldu ditut Twitter bitartez, Espainian eta atzerrian. Bestalde, lagunekin trago bat hartzen dut noizbehinka.

- Musikazalea zara?

Bai, denetik entzuten dut, ba-

tez ere margotzen nagoenean, rapa kenduta. Horrez gain, gitarra elektrikoa jotzen hasi nintzen duela gutxi.

- Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Bai, Espainiako txoko askotan egon naiz. Gainera, 2007tik aurrera Burdeosera joaten naiz sarritan. Frantsesez hitz egiten dakit eta lagunak ditut bertan.

- Ondo moldatzen zara teknologia berriekin?

Bai, Instagram eta Twitter ditut, blog bat sortu nuen, webgune bat diseinatu... Oso goiz ikusi nuen Internet etorkizuna zela, eta horretan trebatzen hasi nintzen, nire belaunaldikoek ideiarik ez zutenean.

- Jatun ona zara?

Denetik jaten dut, baina plater klasikoak ditut gustuko.

- Zure bertute eta akats bana?

Bertutea eta akatsa: oso perfektionista naizela.

- Erraz haserretzen zara?

Ez. Pazientzia handia daukat, baina batzuetan eztanda egiten dut.

- Zure bizitzako egunik zorionsuena?

Nire alaba jaio zen eguna.

- Hartu duzun erabakirik zailena?

Fruta-denda izan nuen Berrizen 3 urtez, eta asko kostatu zitzaidan ixteko erabakia hartzea.

- Zer albiste irakurri nahiko zenuke?

Errepublikatean bizi garela.

- Denboran atzera egin ahalko bazenu...

Ikasten jarraituko nuke, eta ez nintzateke autonomia izango.

Dorleta Vidal

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

**mari
asun**
LORADENDA



Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Umeak eta jolasa

Maddi eskolatik jaso eta etxera eraman du amak. Meriendatzeko zer, eta txokolatezko opiltxoak nahi izan du Maddik. Bitartean sofán etzan eta amak tableta eman dio marrazki bizidunak ikusteko.

Kimetz parkean dago, lagunekin jolasten. Agian lehenago inoiz ikusi ez dituen lagun berriak dira gaurkoak. Zabuetan gora eta behera dabilta, korrika alde batetik bestera...

Bat, bi, hiru, kara bin bon ban... eskeleto... tximeleta... atzera begiratu eta zast! Denak geldi. Buelta eta berriro mugimendua, korrika... Zuhaitzera igo, prakak zikindu, lagunekin dibertitu, hitz egin, abestu, oihi egin...

Ondo pasatzea da askorentzat jolasa. Aspertu gabe denbora pasatzea. Batzuetan kalean, mendian bestetan, etxean, sofán... Jolasa beharrezkoa da. Jolasten haziko da haurra. Haurrak jolasaren bitartez garatuko ditu gaitasunak helduarorako. Jolasten garatuko dituzte haurrek zentzumenak, errespetu-ohiturak, irudimena edota komunikazioa.

Beti ez ditu abilezia berdinak landuko, batzuetan mugimendua, bestetan kognizioa, edo kideen arteko harremanak ere. Zabuetan igo eta jaitsiko da, puzzlearen pieza bakoitza non eta nola jarri pentsatu beharko du... Mugimenduz lagunduko ditu jolasak kalean, korrika, saltoka...



Jon Saez

Jolasten komunikatuko da kideekin. Hizkuntza erabiliko du besteekin jolasteko, hitz egiteko, arauak ezagutzeko edota kideekin nor zer egin adosteko. Emozioak ere adieraziko ditu behar duenean, eraikuntza jolasarekin egingdako dorrea erortzean haserretuko da, baina azken pieza dorrearen goiko puntan jartzean poztuko da...

Etsetxoetara, aita eta ametara jolastuko dute, medikuarenera joango dira, sukaldean ibiliko dira... Jolas sinbolikoaren bitartez errealitatea ezagutu eta antzetzuko dute. Egunerokotasuna ezagutuko dute, arauak, rolak...

Etxean, tabletari begira dagoen haurra, haserretuko da partida galtzean, baina agian ez du Kimetz ezagutuko, Maria, Ane, Suar...

“ Haurrak jolasaren bitartez garatuko ditu gaitasunak helduarorako ”

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Udaldia ate joka

Eskola oporrak bertan eta etxeko txikienen aisialdirako gertu-gertuko lekuak batu ditugu, ia guztiak aukera ludiko, naturalak eta freskoak, goiz edo arratsalde-pasa ederra igaro ahal izateko.



Aranbaltzeko ur-jauzia,
(Mallabia)



Ongaraiko ur-txorrotak (Ermua)



Udal rokodromoa (Mallabia)



Ongaraiko skate parkea (Ermua)



Mallabarreneko iturriko
putzuak eta erreka on-
doko ibilbidea (Mallabia)



Elizpeko ur-txorrotak (Mallabia)



Errekaldeko erreka eta igerilekua (Ermua)

Argazkiak: Estibalitz González eta Ainara Mallagaray.



**SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT**

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



**- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...**

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**Erdikokale 13
(Ermua)**

**ENKARGUAK
943 030 299**

MALLABIA 1985

Argazki hau 1985 urtean aterata dago, Mallabiko Frutosone Taberna aurrean. Bertan agertzen dira Joakin Mendibe, Rikardo Altube "Txori", Eugenio Aranburu "Txo", Rikardo Bastida eta Ana Larrondo. Bitxikeria bezala aipatu Joakin eta bere bi anai Etxekone baserriko hiru ahizpakin ezkondu zirela.



ERMUA 1972



Uztailaren 18aren oroitzapen egunean, Santixau jaietako erregina aukeratzen zen, eta Mila Formoso izan zen urte horretakoa, irudian Udalbatzeko eta Goardia Zibileko hainbat ordezkari inguratuta. Ezkerretik eskumara daude Fernando Echevarria, Felix Arrarte, Antonio Atorrasagasti, Jose Mari Arrizabalaga, Ignacio Onandia alkatea, Antonino Mallagaray, goardia zibilen burua eta udal-bandera eramaten Juan Landaarroitajuregi, zinegotzia hau ere.



Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarakoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apandegi bat
baino gehiago!!*

**Egokitutako burua
garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27

IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.
© 688 68 36 55.



Maiatzaren 28an
Zorionak
Naroa zure 10. urtebetetzean! Primeran pasatu zure egunean eta musu handi bat etxekoan partez.



Uztailaren 13an
Zorionak Iker zure 4. urtebetetzean! Oso egun politxa pasau eta segi orain arte bezela, señorito!! Patxo haundi bat Julene, amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partez!



Uztailaren 6an
Zorionak Marimar. Eskerrik asko zaren bezalakoa izateagatik. Beste 50 urte opa dizkizugu, sinpatiaz eta bihotzez. Zure familiak eta lagunek maite zaituzte.



Maddi (ekainaren 10ean) eta Ibai (ekainaren 28an)
Zorionak gure bikotetxuari!! Ondo-ondo pasa zuen egunean!! Musu haundi bat familia guztiaren partez, pilo bat maite zaituztegu!!



Ekainaren 15ean
Zorionak
Aiala zure 11. urtebetetzean. Oso ondo pasa zure egunean. Segi zure irribarrearekin! Asko maite zaitugu! Musu handi bat guztion partez!!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Uztailaren 13a.**



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



IZASKUN TXURRUKA

Goenkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Uztailaren 14a, osteguna
19:00, plazan: TXARANGEN ARTEKO JOLASAK.

22:30, Martxoaren 8a plazan, BERTSO JAIALDIA.

Uztailaren 15a, ostirala

17:30, plazan: Zirika Zirkus "Aurkitu gabeko alxorra" HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA.

19:00, plazan: TXARANGEN ARTEKO JOLASAK.

22:30, plazan: Versionarios taldearen KONTZERTUA.

Uztailaren 16a, larunbata

9:00, Mallabiko Pedro Deunaren zelaian: TXAKURREN ERAKUSTALDI-LEHIAKETA.

9:00, San Pelaioko kantzeta: SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETA.

10:00, plazako pilotalekuan: ARKU-TIRO PROBA. Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

11:00, plazan: ALDIBEREKO ETA XAKE AZKAR PARTIDEN ERAKUSTALDIA.

23:30, plazan: Skaiketan taldearen KONTZERTUA. Ordu bete lehenago, Slide taldeak joko du.

Uztailaren 17a, igandea

9:00, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

9:30, Anbreko industrialdean: Nazio mailako 2022ko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA mixtoa umeentzat.

10:00, San Pelaion: IRRATIZ KONTROLATURIKO AUTOEN 'ERMUA HIRIA' XXIII. TXAPELKETA.

10:30, plazan: HERRI ARTEKO XXV. XAKE TXAPELKETA.

19:00, plazan: Ermuko Kultur Etxeen MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA, New Orleaneko Komenka Ethnic Dance & Music Ensemble, eta Acurela boliviana taldeekin.

Uztailaren 18a, astelehena

18:30, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

19:00, plazan: TXARANGEN ARTEKO JOLASAK.

22:30, Martxoaren 8ko plazan: Rafa Rueda abeslariaren KONTZERTUA.

Uztailaren 19a, asteartea

18:30, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

19:00, plazan: TXARANGEN ARTEKO JOLASAK.

22:30, Martxoaren 8ko plazan: Pettiren KONTZERTUA

Uztailaren 20a, asteazk.

18:30, San Pelaioko kan-

txeta: PADEL TXAPELKETA.

19:00, plazan: Hortzmuga taldearen "Bidearen amaiera" KALE IKUSKIZUNA.

21:00, plazan: HERRI OGITARTEKADA.

Ogitartekoak eta edariak banatuko dira salneurri berezian.

22:30, plazan: TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA. Lehiaketatik kanpo, Irulitxa txaranga.

Uztailaren 21a, osteguna (Umeen eguna)

11:00, plazan: UMEENTZAKO TXUPINAZOA kolore hautsarekin.

11:15, plazan: BURUHANDIAK.

11:30-13:30 eta 16:00-19:00, plazan, UMEENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK

16:00, plazan: BURUHANDIAK.

17:30, plazan: UMEENTZAKO TXOKOLATEJANA.

18:30, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

19:00, plazan: UMEENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA, Kantu Kolore taldearen eskutik.

20:30, plazan: KOLEREDUN APAR JAIA.

22:00-1:00, Martxoaren 8a plazan: FESTAN BLAI gazteenzako musika Txurru Djarekin.

Uztailaren 22a, ostirala

18:00, plazako pilotalekuan: Iker Izagirre Mikel Egurrolaren aurkako gazteen 4 T,ERDIKO PILOTA PARTIDA. Ondoren 4 T,ERDIKO PARTIDA profesiona egongo da.

18:30, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

22:30, plazan: PLAY-BACK LEHIAKETA.

Uztailaren 23a, larunbata

9:30, San Pelaioko kantzeta: PADEL TXAPELKETA.

10:30, plazan hasita: URKO 69etan ezetz! XI. IGOERA KONTROLATUA.

16:30, plazan, MUS TXAPELKETA.

19:00, plazan: DANTZA EMANALDIA, Ermuko Txindurri eta Adejeko (Tenerife) dantza taldeekin.

23:30ean, San Pelaion: La Oreja de Van Gogh taldearen KONTZERTUA.

BESTELAKOAK

Uztailaren 2an:


V. Afrika-Ermua Jardunaldiak Orbe Kardinalaren plazan (egitaraua 13. orrian).

Uztailaren 7tik 10era: San Lorenzo auzoko jaiak.

Uztailaren 8 eta 9an:

Emakume gazteen II. Topaketak.

Patxi López




LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel. 943 17 71 34

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

OSASUN GIDA

IRAZ
 Odontologia
 Fisioterapia

943 578 617
 615 793 717
 www.irazuklinika.com

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí

SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264

PADI ☎ 943 17 04 04
 Programa
 Ayuda Dental
 Infantil
 Gobierno Vasco

✉ info@clnicasanpelayo.com
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

Gure bezeroek eskatu digute,
eta hemen dago

Asteartetik ostiralera

Zure zain gaude

610 222 468

**EGUNEKO
MENUA**



Mañeko